**LEMOA UDALA**

## LEMOAKO UDALAREN ADMINISTRARI PLAZA BAT HORNITZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN EPAIMAHAI KIDEEN BATZARREKO AKTA

## ACTA DE LA REUNION DE LOS MIEMBROS DEL TRIBUNAL DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA PROVISIÓN DE UNA PLAZA DE ADMINISTRATIVO/A DEL AYUNTAMIENTO DE LEMOA

---

2019ko uztailaren 12ko 9:00ak direnean, ondoren adierazten den epaimahai kalifikatzailea bildu da Lemoako Udalaren Administrari plaza bat hornitzeko hautaketa prozesuari buruzko egintza burutzeko.

Siendo las 9:00 horas del día 12 de julio de 2019, a los efectos del acto relativo al Proceso Selectivo para la provisión de una plaza de administrativo/a del Ayuntamiento de Lemoa, se reúne el tribunal calificador, con la asistencia que se expresa.

-Sonia Iruarrizaga Etxebarria andrea, udal Funtzionarioa.

-Arantza Petralanda Idiondo andrea, Dimako Udàletxeko Funtzionarioa.

-Amaia Etxebarria Egiluz andrea, Amorebieta-Etxanoko Udaletxeko Funtzionarioa.

-Asier Madariaga Markoartu jauna, IVAPeko ordezkaria.

-Elena Galindo Santiago andrea, Udal funtzionarioa, Epaimahai Kalifikatzailearen Idazkari gisa.

-Dña. Sonia Iruarrizaga Etxebarria, funcionaria municipal.

-Dña. Arantza Petralanda Idiondo, Funcionaria del Ayuntamiento de Dima.

-Dña. Amaia Etxebarria Egiluz, Funcionaria del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

-D. Asier Madariaga Markoartu, representante del IVAP.

-Dña. Elena Galindo Santiago, funcionaria municipal, actuando como Secretaria del Tribunal Calificador.

1. **Alegazioa merezimenduen balorazioari.**

Idazkaritzak jakinarazi du, argitaratutako merezimenduen balorazioari alegazioak aurkezteko epearen barruan, JMGN jaunak alegazioa aurkeztu zuela uztailaren 4an, uztailaren 2an argitaratutako merezimenduen balorazioari buruz.

JMGN jaunak aurkeztutako merezimenduen balorazioaren amaitzak honako hauek izan ziren:

| Esperientzia | Ikastaroak | Euskara |
|---|---|---|
| 12,50 puntu | 4,210 puntu | 0 puntu |

Uztailaren 4ko idatzian alegatzen du bere prestakuntza 4,210 punturekin baloratu dela eta 6,00 punturekin baloratzeko eskatzen du.

Horrenbestez, Idazkaritzak jakinarazi du ezinezkoa dela 1,8 punturekin baloratzea Euroninnova Formación SL enpresak emandako sektore publikoko kontratuen kudeaketako goi-mailako ikastaroa. Izan ere, hautaketa-prozeduraren oinarri arautzaileen 9. klausulan ezartzen den moduan, aurkeztutako titulua ez da Administrazio Publiko batek edo zuzenbide publikoko erakunde batek antolatua, emana edo homologatua. Horrez gain, aipatutako zentroan kontsulta egin ostean, doikuntzarik gabeko prestakuntza osagarriko zentro pribatu bat denaren berri eman digute; horrenbestez, titulu hori ez da puntuatu.

1. **Alegación a la valoración de méritos.**

La Secretaria informa que, dentro del plazo de presentación de alegaciones a la publicación de la valoración de méritos, se presentó en fecha 4 de julio, alegación por parte de JMGN, a la valoración de los méritos publicada en fecha 2 de julio.

Los resultados de la valoración de méritos presentados por JMGN fueron los siguientes:

| Esperiencia | Cursos | Euskera |
|---|---|---|
| 12,50 puntos | 4,210 puntos | 0 puntos |

En su ecrito de fecha 4 de julio alega que se le ha valorado la formación con 4,210 puntos y solicita que se le valore con 6,00 puntos.

En este punto la Secretaria informa que no se le puede valorar con 1,8 puntos el curso superior en gestión de contratos en el sector público emitido por Euroninnova Formación, S.L. puesto que, tal y como se establece en la cláusula 9 de las bases reguladoras del proceso selectivo que nos ocupa, el título presentado no está organizado, impartido u homologado por una Administración Pública o por organismo y entidad de derecho público; al igual que, una vez hecha la consulta al citado centro, nos informan que se trata de un centro privado de formación complementaria no reglada; por lo tanto, dicho título no se le ha puntuado.

LEMOA UDALA

Era berean, ez dira puntuatu ez Datuen babeserako Legearen gaineko ikastaro praktikoa, ezta Administrazio Zuzenbideko eta administrazio publikoen online gidaliburua ere.

Alegatu du ez zaiola baloratu Bizkaiko abokatuen elkargoak emandako abokatu lanbide-gaitasuneko diploma; honi dagokionez, idazkaritzak jakinarazi du ez dela prestakuntza akademiko baten kasua, ez baita hezkuntza alorreko erakunde ofizial batek emana.

Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroen atala aplikagarria izan daiteke elkargo profesionalen atalean. Hala ere, aurrekoaren kasuan, ez dira eskola-orduak azaltzen ziurtagirian eta beharrezko baldintza bat da ikastaroak baloratu ahal izateko.

Halaber, alegatu du, eskaerarekin batera 3. hizkuntza-eskakizuna (HABE C1 titulua) aurkeztu zuela, eta euskararen atala 0 punturekin baloratu dela; horregatik, 2 punturekin baloratzeko eskatzen du.

Berrikusi egin da 2018ko irailaren 21ean aurkeztutako dokumentazioa. Bertan aurkeztutako euskara titulua B2 da, baina ekainaren 24an, merezimenduak egiaztatzeko aldian, ez zuen hizkuntza-eskakizunari zegokion dokumentazioa gehitu. Hori dela eta, hizkuntza-eskakizuna ez zaio 2 punturekin baloratu.

En el mismo sentido no se le ha puntuado ni el Curso Práctico sobre la Ley de protección de datos personales ni el Manual online de Derecho administrativo y de las administraciones públicas.

Alega que no se le ha valorado un diploma de aptitud profesional de abogado emitido por el colegio de abogados de Bizkaia, en este sentido, la Secretaria informa que no estamos ante un supuesto de formación de carácter académico, por cuanto que no ha sido impartido por un organismo oficial en materia de educación.

Resultaría de aplicación el apartado de cursos de formación y perfeccionamiento, en el apartado de colegios profesionales. No obstante lo anterior, no figura en el certificado las horas lectivas de duración, requisito necesario para poder valorar dichos cursos.

Igualmente alega que aportó junto con la solicitud el perfil lingüístico 3 (título HABE C1) y que se le ha valorado el apartado de euskera con 0 puntos, por lo que solicita que se le valore con 2 puntos.

Revisada de nuevo la documentación presentada en fecha 21 de septiembre de 2018, el título de euskera aportado es el B2, y en fecha 24 de junio, acredita los méritos sin incluir documentación relativa al perfil lingüístico; por dicho motivo no se le ha valorado el perfil lingüístico con 2 puntos.

www.lemoa.net harrera@lemoa.net | Arraibi, 1. 48330 Lemoa (Bizkaia) T: 94 631 30 05 F: 94 631 43 22 IFK: P4806500G

**LEMOA UDALA**

Aurkeztutako alegazioa aztertuta, Epaimahaiak berau aintzat ez hartzea erabaki du, Udaleko alkatearen aurrean gora jotzeko aukera eskainiz, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121.1 artikuluan xedatuari jarraikiz.

Una vez concluído el análisis de la alegación presentada, el Tribunal acuerda desestimar la misma con ofrecimiento de posibe interposición de recurso de alzada ante la Sra. Alcaldesa de este Ayuntamiento, dentro del plazo de un mes dando cumplimiento a lo dispuesto en el art. 121.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**2. EAF jauna karrerako funtzionario izendatzeko proposamena.**

Amaitu da merezimenduen balorazio-prozedura eta ebatzi da JMGN jaunak aurkeztutako alegazioa. Aintzat hartu dira hautaketa-prozedurako oposizio-lehiaketako emaitzak Lemoako Udaleko administrari plaza bat betetzeko, eta 103,989 puntuko gehieneko puntuazioa lortuta, Epaimahaiak proposatu du EAF jauna izendatzea karrerako funtzionario.

**2. Propuesta de nombramiento como funcionario de carrera a EAF.**

Finalizado el proceso de valoración de méritos y resuelta la alegación presentada por el Sr. JMGN, teniendo en cuenta los resultados del concurso-oposición del proceso selectivo para la provisión de una plaza de Administrativo/a del Ayuntamiento de Lemoa, y una vez obtenida la máxima puntuación de 103,989 puntos, el Tribunal propone el nombramiento como funcionario de carrera al Sr. D. EAF.

Egindako guztiaren akta jasotzen da, idazkari gisa ziurtatzen dut.

De todo lo actuado se levanta la presente acta, de lo que como secretaria certifico.

**OºEºALKATEAK**

**Izp. Saioa Elejabarrieta Amorrortu**

LEMOA

**Mahaiko Idazkaria**
**La Secretaria de la Mesa**

**Izp. Elena Galindo Santiago.**


harrera@lemoa.net | Arraibi, 1. 48330 Lemoa (Bizkaia) T: 94 631 30 05 F: 94 631 43 22 IFK: P4806500G